

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BURGELUKO UDALA

Behin betiko onestea 2020ko aurrekontu orokorra

Udal honek, 2019ko abenduaren 19an egindako osoko bilkuran, erabaki zuen hasierako onestea ematea 2020ko ekitaldirako aurrekontu orokorrari, eta ez da aurkeztu inolako erreklamaziorik edo oharrik erabaki horren aurka. Beraz, bat etorri Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak 15. artikuluan xedatutakoarekin, aurrekontu hori behin betiko onetsirik gelditu da. Hona hemen haren laburpena, kapituluka:

Gastuen egoera

KAPITULUA	ZENBATEKOA
I. Langile gastuak	178.163,53
II. Ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak	292.060,00
III. Finantza gastuak	0,00
IV. Transferentzia arruntak	101.650,00
(Eragiketa arruntak: 571.873,53 euro)	
VI. Inbertsio errealak	175.870,28
VII. Kapital transferentziak	36.000,00
VIII. Finantza-aktiboak	0,00
IX. Finantza-pasiboak	0,00
(Kapital eragiketak: 211.870,28 euro)	
Gastuen egoera guztira	783.743,81

Diru sarreren egoera

KAPITULUA	ZENBATEKOA
I. Zuzeneko zergak	274.332,00
II. Zeharkako zergak	20.000,00
III. Tasak eta bestelako diru sarrerak	65.620,00
IV. Transferentzia arruntak	238.015,97
V. Ondare bidezko diru sarrerak	12.905,56
(Eragiketa arruntak: 610.873,53 euro)	
VI. Inbertsio errealak besterentzea	0,00
VII. Kapital transferentziak	172.870,28
VIII. Finantza-aktiboak	0,00
XI. Finantza-pasiboak	0,00
(Kapital eragiketak: 172.870,28 euro)	
Diru sarrerak, guztira	783.743,81

Halaber, iragarki honen eranskin moduan erakunde honetako lanpostu zerrenda argitaratzen da, halaxe xedatzen baitu Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeak 6. artikuluan.

I. eranskina

1. Karrerako funtzionarioak.

1.1 Gaikuntza nazionalekoak.

1. Eskala: idazkari-kontuhartzaitza; lanpostu kopurua: 1; taldea: A1; titulazioa: Zuzenbideko, Politika eta Administrazio Zientzietako, Soziologiako, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako, Ekonomiako, edo Aktuariotza eta Finantza Zientzietako lizentziaduna; hizkuntza eskakizuna: 4, derrigortasun datarik gabe; egoera: aktiboan; dedikazioa: lanaldi osoa, destino-osagarriaren maila: 26; betetzeko era: lehiaketa; berariazko osagarria: 21.253,26 euro.

1.2 Administrazio orokorrekoak.

A) Azpieskala: administrazio langileak.

1. Izena: administraria; lanpostu kopurua: 1; egoera: aktiboan; taldea: C1; titulazioa: goi mailako batxilergoa, LH II, hirugarren mailako lanbide modulua, goi-mailako zikloa edo baliokidea; hizkuntza eskakizuna: 2, derrigortasun datarik gabe; dedikazioa: lanaldi osoa, destino-osagarriaren maila: 14; berariazko osagarria: 19.157,88 euro; betetzeko era: oposizio-lehiaketa.

II. eranskina

Dedikazio partziala duten korporatiboak: 23.932,26 euro.

Korporazioko kideen kalte ordainak:

Korporazioko kide bakoitzak kide anitzeko organoen bilkuretara joateagatik berrogeita bat euro eta hogeita bederatzi zentimoko (41,29 euro) kopuru finkoa jasoko du.

Era berean, berrogeita bat euro eta hogeita bederatzi zentimo (41,29 euro) jasoko dituzte bilera, jardunaldi, mintegi, hitzaldi eta abarretara joateagatik, beste erakunde batzuek konpentsatzen ez badituzte, eta udalbatzaren izenean joaten badira eta hark baimenduta.

Udalbatzako kide guztiek jasoko dute euren egitekoak betez sortzen zaizkien gastuen ordaina, hauei badagozkie: bidaia gastuak, joan-etorriak eta otordu sariak, betiere behar bezala justifikatu ondoren.

Aurrekontu horren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako dagokion epaitegian. Horretarako, bi hilabete izango dira, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Dena den, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu aurretik berraztertzeke errekurtsua aurkeztu ahalko zaio, nahi izanez gero, erabakia hartu zuen organoari, hilabeteko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Burgelu, 2020ko otsailaren 4a

Alkate-lehendakaria

NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA